



**Donostiako udal administrazioan 200 arigune sortu dira eta dagoeneko 600 langilek eman dute izena Euskaraldian**

Donostiako udal administrazioko langileek Euskaraldiaren bigarren edizioan jarritako erronka berriari eutsi egin diote eta 200 *arigune* sortu dituzte. Dagoeneko Udaleko zuzendaritza, erakunde autonomo eta enpresa publikoetako 600 langilek baino gehiagok eman dute izena, bai taldean jarduteko bai indibidualki; eta, era horretan, haien eguneroko lan hizkuntza euskararen alde aldatzeko nahia erakutsi dute.

Aurreko edizioan baino 100 langile gehiagok eman dute izena oraingoz, ekainean Euskara Zerbitzutik abiatutako prozesua lagun. Azken hilabeteotan, beraz, *ariguneak* identifikatzen, langileen adostasuna lortzen eta izen ematea sustatzen aritu dira zuzendaritzaz zuzendaritza, atalez atal, batzordez batzorde, erakundez erakunde.

Donostiako Prebentzio Su itzalketa Salbamendu zerbitzuan, esate baterako, 3 arigune sortu dituzte, eta guztira 164 langilek eman dute izena. Udaleko Youtube kanalean egindako prozesuaren [bideoa](#) ikus daiteke.

Datua oso pozgarria da, are gehiago aurtengo egoerak denon eguneroko bizitza eta lan egiteko era egokitu beharra ekarri duen garaian. COVID 19a euskararen normalizazioan geldiune bat izan dela adierazi du Jon Insausti Kulturako eta Euskarako zinegotziak *“hartutako zenbait bide eta egitasmo etetera edo moteltzera behartu gaituelako, modu berriak asmatzera bultzatu eta abar. Ulertzen dugu testuinguru honetan aurtengo Euskaraldia abagune ederra izan daitekeela denok helburu bati bultzada eman diezaiozun. Aukera ona inertzia egokiak berreskuratzeko edo esperientzia berri bat abiatzeko”*.

Administrazioari euskararen normalizazioan eredugarri izatea dagokio; eta horretarako langileen eta ordezkarien parte hartze aktiboa nahitaezkoa denez, Euskaraldia eguneroko lan harremanetan helburu horri begirako tresna gisa ulertu da Udalean; lan hizkuntzan aurrera pausuak emateko ariketa bezala; proba bat, erronka bat, banakakoa izanda ere kolektiboa.

Atzera kontua martxan da, azaroaren 20an hasiko baita ariketa soziala. Jon Insaustik donostiar guztiak gonbidatu nahi ditu hamabost egunez ahobizi edo belarriprest izatera etxean, kalean, lanean euskararen aldeko hautua egin dezaten. *“Gauden lekuan gaudela, dela modu birtualean edo aurrez aurre, euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egiteko unea da”* nabarmendu du zinegotziak.